

BALENDIN ENBEITA BERTSOPAPER LEHIAKETA

XVI. EDIZIOA

BERTSO SORTA SARITUAK



HELDUEN MAILA | GAZTEEN MAILA
SARI EMATEA ABENDUAREN 14KO ALBE GALAN
INFORMAZIO GUZTIA ALBE.EUS WEBGUNEAN

LARRU ARRAS

Doinua: *Ai hori begi ederra*

1

Dozena bat urte jiran,
haurrak hormonon deriban,
mantxak azalera igan.
Ezpain gainean, zilbor azpian,
galtzarbeetan segidan.
Lehen biloak dilindan,
salatzen ari bailiran,
nerabetzen nor ari dan.

3

Esku ahurrak, oin azpi
salbu, bisaia bekaizti
ilundu orduko: gaizki.
Erraietatik ateratzeko
argizari, argi izpi.
Jakin ez arren zehazki,
zenbatero, zenbat asti;
beharbada ez da aski.

5

Krema, guraize, makinak,
zauri arrosak, urdinak;
autolesio berdinak.
Kosmetikoek nahi lituzkete
adats horiko panpinak.
Betiledun erretinak
ikusi ditzan sorginak,
zatarrak eta zikinak.

2

Neguko babes apen,
udarako bero sopen
izerdia erasaten.
Ebakitako aztalak dira
praka laburren luzapen.
Izterrak ez du esaten,
zer erakutsi lezaken
seinalatu ez dezaten.

4

Intimoaren itzala,
hazkuntzak mozte kausala
soina baineran datzala.
Ihesbideak iruten daki
haritik mataza hala;
txorrotak daramatzala,
erauzi balu bezala,
aitzurrarekin azala.

6

Tximua gizon denero,
Adanek Eva umero,
Venus Gilleten numero.
Epidermisek ez baitakite,
estetika efimero
mutilatu hau, genero
anomalia den, edo
zapaldutako gen ero.

XVI. BALENDIN ENBEITA BERTSOPAPER LEHIAKETA

7

Bagina lehoien talde,
eme borrokan ahalge
harrapakinaren salve.
Har iletsuak, lepa soilari
exigentzia debalde.
Izarapeak sukalde
latza leunaren galde,
espartzuaren bi alde.

9

Rimela bada ikuspen,
batutako bekain pusken
zuztarrak, hari lotuz ken.
Betazalaren desirak nola
postizo egin dituzten;
begi tarteak biluzten
jardun gabe, ez du uzten
bi ertzetatik ikusten.

11

Ukabil gora jasoa,
eskumen zelai osoa
bihurtu arte basoa.
Betaurrekoen aurreiritzia,
tirantearen lausoa.
Zuzentzea hara soa
bazaigu deserosoa,
norena da arazoa?

8

Greziarren usadio,
estetika estudio
eta tinteko rubio.
Bizarra bihur ote liteke
protestarako medio?
Kritikaren argudio
labana erremedio.
Ispiluak ezetz dio.

10

Artalde biluzi, adats
kizkurdun arkume aratz,
edo galdu txima narrats.
Bakasten kabi, barrabas toki,
saila ez dadin azkar haz,
goibel janzten daki arras;
baratzea nola larraz
moztu arren larru arras.

12

Inausi ahala kopeta,
lepo bizardun ordeka,
zahia zorrien olgeta.
Bakandu nahia erne ezinez
ilberriari kolpeka.
Gorputza da, falta eta
soberaren desoreka.
Larru bat hutsez beteta.

ARRASTIA BERRIRO

Doinua: Nigarra Begian (Xalbador 200 urtez bertsotan, Xabier Lete)

1

Egunari hartuta
gaurkoan tamaina
zeru bat margotu dit
hauskorra, labaina
nostalgiara nahi du
bildu beti baina
idilikotik dauka
ilunetik haina.

2

Gorde nahi dute nire
hitzek kontrasteen
inurriak gordetzen
diren lokazpean
arrastia azala
mudatzeko hastean
dantza lotuan dabil
udazken askean.

3

Ontzen doa baserri
erdian murala
horma kraskatu zaio
begiztatu ahala
munduari hitz egin
balio bezala
oskolak gogor ditzan
balio dezala.

4

Teila lizunduetan
kaskabar marrantak
erlaitzean umelik
galtzak ta abarkak
alferrik dira oihuak
ta huskeriak kantak
jausten ez baleude lez
jausten dira tantak.

5

Norantza gabe, nola
apoak errekan
orbelak igerian
badoaz xerketan
isla ezereza da
miresten denetan
potxingoetan sortzen
diren esferetan.

6

Txakur zaharra irten da
eszenara lehen
ausia ajatua
ezker hanka herren
bazter denak nahasten
ari da, bederen
zernahi usna dezake
jakin gabe zer den.

XVI. BALENDIN ENBEITA BERTSOPAPER LEHIAKETA

7

Harrizko loreontzi
hartako adaxkan
irudia paisaiaz
harago da laztan
barraskiloa arnas
txiki baten bazkan
grisaren diktaduran
dir-dirka bedaxkan.

9

Ordu luzeek maizter
onen aldarlean
ke lurrina ihesi
omen dakarte han
agurtzeari ekin
diot etarte
lanpasak "Ongi etorri"
dioen artean.

11

Bizilekura nator
leku den bizira
teontzi bat txistuka,
egurren pilpila...
leihopetik egia
asko ageri da
barrua ikusten dut
kanpora begira.

8

Kilima aldaketan
pikondo, madari
jaitsi behera gartsu
igo gora nagi
haizea ez da ausaz
inarrosten ari
koreografia bat
itxaropenari.

10

Aro hitsak atera
dezala zirrar
ta daukan iruzurti
sena argitara
pozteko bihurtu da
gordinegi jada
negarrez aritzeko
politegia da.

12

Triste egon beharrak
sortzera narama
norbere hesituran
onbera da drama
amore ematea
da dagokidana
arrastia berriro
badator nigana.

GYMBROARENAK

Doinua: *Zarauzko balearena*

1

Bada tendentzia bat
kaleetan barrena
despolitizazio
latza dakarrena
horretxan adibide
ustez nabarmena
hitz neurtuan jartzeko
hartu dut baimena
beraz, zein den azaltzen
hastea onena

3

Orain gimnasia
hartzen ditu pistak
bertan altxatu asmoz
burdinezko diskak
poseak, muturtxoak
eta begi-klixxak
besoetako koxkor
sabeleko sixpack
Instagrameko horman
zer nolako bistak!

5

Burdina eskuan ta
bizepa gogoan
zein meloi zaporedun
vaperra ahoan
seguru sentitu ohi
da bere giroan
aldira dauka, berdin
da norekin doan
Ertzain izan nahi duen
lagun bat ondoan

2

Hauxe da deskribatu
nahi dudana pertsona:
hogeita hiru urte
buelako gizona
bere garaian, igual,
futbolari ona
hori esan zioten
egunetik hona
burua ilargira
joan zitzaiona

4

Scrollingean hiru
lau ordu igaroz
Cryptobroak entzunda
"hermanos, hermanos"
Azpiazu oihuka
"oilasko ta arroz"
Lamborghini batean
aholkuka Llados
beste Tik-Tok bat eta
beraiekin ados

6

Eguna bukatzen du
ohean etzanez
berandu lokartzen da
hamabietan ez
mobila utzi eta
egiten du amets
bosterdian gora
alarma daukanez
burpeeak egin behar
direla esanez

XVI. BALENDIN ENBEITA BERTSOPAPER LEHIAKETA

7

Ze endorfina eta
izerdi isuri
ekin gelditu arte
zorabioz zuri
gosarian nahasi
olo ta marrubi
kaskoak jantzi eta
fabrikara mugi
mundua irenstera
doala dirudi

9

Fabrikan soldata da
aski emendio
etxe bat erosteko
jarrita serio
bikote gazte batek,
ze erremedio?
hilean mila euro
direla medio
hipoteka ordaintzen
lagunduko dio

11

Areagotzen dabil
halako joera
mundu zaharrak egin
ahala gogorrera
betikotu ez dadin
gaurko egoera
elkarrengana batu
behar da norbera
begira egon gabe
geure zilborrera

8

Ahaztuta lanak ekar
dezakeen estresa
linean dena da lan
ta ezer ez kexa
helburu gisa jarri
baitu Mercedes
hala defendatzen du
daukan interesa
berea balitz legez
inoren enpresa

10

Ez gara bizi dena
libre den uhartean
sistema batek gauzka
gu atzaparpean
desgraziek iraungo
dute jendartean
horrelako pertsonak
dauden bitartean
aurea hartu nahian
berdinen artean

USTEKABEAN LOTUTA

Doinua: Azken urteetan gure herrian

1

Bakarrik nintzen autobusean
liburu bat irakurtzen
aldamenean eseri zinen
eta ez zinen damutzen
galderak egin eta jolastuz
hasi ginen ezagutzen
sortu genuen galdera joko
hura saiatuz arautzen
ginen gertu eta zuzen
eta ez zinen urruntzen
ustekabeen hitzen artean
gu ginen elkar ikutzen
gutako inork ez zuen uste
baina soilik gertatu zen

3

Biok genuen gauza honetan
ez genuen deus hitzartu
eta horrexek nire gogoak
zizkidan berriz askatu
orduan festan atera nintzen
ta jendea gerturatu
ustekabeen sanferminetan
zuk ninduzun harrapatu
min izugarria hartu
orain ezin naiz lokartu
kasualidadez astebetera
parrandan ginen topatu
ta barkamena eskatu nizun...
ez nuen ondo jokatu

2

Hiru lau egun pasatu eta
iritsi nintzen ahaztera
baina mezu bat jaurti zenidan
lehen aldiz Whatsappera
egin zenidan berriro ere
geratzeko eskaera
nik baietz esan eta izan zen
bizio honen hasera
joan nintzen zure etxera
dena izan zen plazera
ta guzti horrek jaurti zintuen
nirekin maitemintzera
hiru-lau bider errepikatu
genuelako berbera

4

azaldu zinen positiboki
ni barkatzearen alde
genuenari jarraibide bat
emateko bare-bare
ez zaude ondo erantzun nizun
astinduz goi eta behe
ulertu ezin gu ez garela
bata bestearen jabe
mina jasaten debalde
horrekiko itsu zaude
zure mezuak erantzutea
utziko nuen halare
ea horrela ahazten nauzun
min gehiago eman gabe

5

bi hilabete pasa zaizkigu
eta pasa da udara
kuadrilak esan dit jetsi zaitez
etor zaitez arkaitzara
pereza daukat gaurko honetan
nire lagunen kontrara
ta bat-batean urduritu naiz
eta nik esan dut "hara!"
mugikorrean dardara
neska horren mezua da
nire herrira etorri da gaur
lagunekin parrandara
ez dakit berriz jetsiko naizen
edo banoan lotara

7

Iritsi zaigu berriz negua,
Itzali zaigu kemena
Eta betiko luzatuko da
Hasia den su etena.
Lagun asko amankomunean,
Hori bion ekarpena
Elkar askotan ikusten dugu
Euskal Herrian barrena
Hori da zure eztena
Argia da ebazpena
"Agur" bat baxu, burua altxaz
Hori da gelditzen dena
Elkarrentzako onena zena
Egin zutenen kondena

6

Azkenerako ez nintzen jetsi
bebingoaz nigan pentsatzen
nire etxean berriz pentsakor
barru denak arakatzen
ohartu nintzen sentimendu bat
Soilik nuela bilatzen
zurekin ez zen, ta urruntzea
ideia ona izan zen
Lotura joan zen askatzen
Eta harremana galtzen
Oraindik ere segi zenuen
Niganaino gerturatzen
Lehenago sua ziren errautsak
Berriz berpizten saiatzen

AHIZPAK GARELAKE

Doinua: *Orioko balea*

1

Ikusi orduko gauz
haserre-artega,
ta hori guretzako
errutina bat da.
Nahiz eta gogaitzen zu
zaren trebe, hara!
Ahizpak garenez ondo
konpon behar gara.

3

Sukaldera sartzean
agurtu_irribarrez,
komuna ataskauta
egon ez balitz lez.
Eta zereal gutxi
geratzen zirenez,
jo, ez didazu utzi
bat bera ere ez!

5

Klasean be oroitzen,
lehengo hika-mika.
Aspertuta begiak
ia erdi itxita.
Bukatu ta etxera
joateko irrika,
nago ni zure falta
sentitzen hasita.

2

Goizeko zazpitan
esnatu naiz baldar.
Korrika komunera,
dut txisagure lar,
baina okupatuta
dago dugun bakar.
Komunera joateko
txanda hartu behar.

4

2 minutu baino ez
pasa eta hala!
Buruan ditut jada
mila ta bat bala.
Hau ezin dut sinetsi,
ez da erreala,
eskolara joateko
gogoa dudala.

6

Nahiz ta eztabaidatzen
dugun gehiegi guk,
dinodana benetan
sentitzen ez baitut.
Hala ere oingoan,
barrutik dinotsut:
Bihotz-bihotzez, ahizpa
asko maite zaitut!!

ALBE GALA 2025

Abenduaren 14an, igandean
Algortako Igeretxe hotelean
12:00etatik aurrera

Araitz Lasaren dantza emanaldia

BERTSO SAIOA
Sustrai Colina
Ane Labaka
ALBEko bertsolariak

BALENDIN ENBEITA
bertsopaper lehiaketako
sari-banaketa



Kopaua eta kontzertua
Bidean erromeria taldearekin

Gonbidapenak eskuratzeko:
albegetxo@gmail.com / 605704385



LAU LETRATXO

Doinua: Martxa baten lehen notak. Mikel Laboa

Lau letratxo elkarren ondoan:
akronimoa da, brabo!
Eta atzean bertso-eskola bat...
barkatu, askoz gehiago!
A, L, B eta ondoan E,
ALBE lez ezagunago,
Trinok ta Andonik sortu zutena
gaur baino askoz lehenago.
Laurogeian sortu zuten eta,
ez ote dugu arraro
hainbeste urtez jardun izana
bertsogintzaren abaro?
Sekretutxo bat badauka, baina,
irauteak aroz aro:
ALBEn ahotsak ugari dira,
bihotza bakarra dago!

